

Be Veggie 2026eko araudia

I. artikulua: **Araudia.** FICOPA Fundazioko Azoka Jardueren Araudia Be Veggie 2026ko araudiari atxikita geratzen da eta ezin da ezabatu, bertako osagai baita. Beraz, Erakustaldi honetan aplikatzekoak dira haren atal guztiak.

II. artikulua: **Batzordea.** Erakusketari gisa parte hartu nahi duten eta Be Veggieren ataletan sartzen ez diren enpresek azaldu beharko dute zergatik uste duten egokiak direla beren produktuak edo zerbitzuak bertan erakusteko. Ondoren, Batzorde Antolatzaileak erabakiko du onartzekoak diren ala ez. Prozedura bera jarraitu beharko dute Be Veggie-ko sektoreetako enpresek, antolatzaileek onartzeko zalantzarik badute.

III. artikulua: **Izen ematea, parte hartzeko kontratua eta kokapenaren esleipena.** Izena emateko, "Erakusketariak onartzeko eskaera" izeneko online-inprimakia bete eta bidali behar dute erakusketariak www.beveggie.eus webgunearen bitartez. Hala dagokionean, XVI. artikuluan adierazitako irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak erantsi beharko dituzte. Eskaera hori eta dagokion dokumentazioa jasotakoan, FICOBak idatziz edo telefonoz baieztatuko dio erakusketariari onartua izan dela. Kasu horietan, erakusketariak guztizko kopuruaren % 50 eta 230 €-ko fidantza bidaliko du. Ordu ezkeror, izen emateko eskabidea "parte hartzeko kontratua" izango da ondorio juridikoetarako. Ordainketa transferentzia bitartez egingo da, FICOPA FUNDAZIOAREN izenean (IBAN: ES 69 2095 5045 8210 6428 5785).

Ordainketarekin batera, salmenta zuzena egitea nahi duen erakusketariak eskabidean eskatutako dokumentuak bidali beharko dizkio FICOBari. Dirua jasotzerakoan, erreserba baieztatuko zaio erakusketariari baina ez zaio baieztatuko kokapen zehatz bat. Antolatzaileak kokapenak esleitzeko askatasuna du. Antolatzaileak stand-aren kokapena jakinaraziko dio erakusketariari. Erakusketaria izen ematearen momentuan kokapen zehatz bat eskatu izanak, ez du askatasun hau aldatuko.

Erakustaldiaren ondoren itzuliko da fidantza, honako kasu hauetan izan ezik: erakusketariak parte hartzeari uko egiten dionean; erakusketariak bere produktu edo zerbitzuak aurkezteko pasabide edota zona komunak erabiltzen ditunean; standa azoka bukatu baino lehen uzten denean; ordutegia betetzen ez denean eta iltzatzearen, margotzearen, zulatzearen, grapatzearen, zerratzearen, kolatzearen edo dena delakoaren ondorioz standaren egitura hondatzen denean. Era berean, fidantzatik kobratuko dira "desmuntzearen ondorengo zaborren garbiketa" (LIM 2 erref.) edota "inaugurazioa baino lehenagoko garbiketa" (LIM 0 erref.) zerbitzuekin lotutako gastuak, erakusketariak zerbitzu horiek kontratatu ez ditunean eta antolakuntzak gauzatu behar ditunean. Bestalde, eskaera onartu ezean, FICOBak idatziz jakinaraziko dio eskatzaileari ez dela onartua izan.

Gainontzeko %50a ekitaldia ospatu baino hilabete bat lehenago ordaindu beharko da. Edonola, partehartzearen %100a ekitaldiaren ospakizuna baino lehenago ordaindu beharko da.

IV. artikulua: **Non eta noiz egingo den.** Be Veggie 2026 Ficoban egingo da: Iparralde ibilbidea 43, 20302 Irun, 2026ko urriaren 31 eta azaroaren 1-a bitartean, ordutegia honako hau izanda: urriak 31, 10:00etatik 20:00etara, eta azaroak 1, 10:00etatik 18:00etara. Erakusketariak ireki baino ordubete lehenago sar daitezke erakusketa gunean, eta bertan geratu ahal dira aretoa itxi eta ordu erdira. Ekitaldia urriak 31, 12:00etan inauguratuko da era ofizialean. Standen erakusketa tokirako sarrera 19:30etan itxiko da publikoari urriaren 31ean, eta 17:30etan azaroaren 1ean, baina jadanik barnean dauden bisitariak 20:00ak arte egon ahal izango dira urriak 31an, eta 18:00ak arte azaroak 1ean.

V. artikulua: **Espazioaren esleitzea.** Antolakuntzak enpresa erakusketariei euren kokapena proposatuko die ekitaldiaren planoan, enpresek dagoeneko euren izen emateak bete dituzenean eta antolakuntzaren onespena jaso dutenean. Hori lortzeko, enpresek izen ematea bete, eta stand-aren %50a eta fidantza (230€) ordaindu behar izango dituzte. Antolakuntzak, proposatutako kokapena aldatzeko eskubidea du, ekitaldiaren produkzioaren arrazoiak direla eta, erakusketariak indemnitazio bat eskatzeko aukera ez dute.

VI. artikulua: **Erakusketariarentzako akreditazioak.** Azoka egunetarako eta muntatze eta desmuntatze egunetarako, erakusketari bakoitzak doan jasoko du standeko langileei zuzendutako erakusketariarentzako akreditazioak.

VII. artikulua: **Muntatzea eta desmuntatzea.** Diseinuzko standak muntatzeko eta stand modularrak apaintzeko egunak urriak 29 eta 30 izango dira, 9:00etatik 18:00etara. Desmuntatzeko egunak azaroaren 1-a (18.30-22:00) eta azaroaren 2-a (9:00-14:00) izango dira. Muntatzeko eta desmuntatzeko garaian ezingo da merkantzien zama-lanetarako ibilgailurik sartu pabilioietan. Standetan, instalazioetan, materialetan eta merkantzietan gertatzen diren kalte guztiak, erakusketariak berak eginda edo hark jarritako instalazioek sortutakoak badira, hark berak ordaindu beharko ditu.

VIII. artikulua: **Standei eman beharreko arreta.** Erakusketariak standak behar bezala zaintzeko ardura izango du erakusketa irekita dagoen bitartean.

IX. artikulua: **Entzunaldiak eta proiektzioak.** Standetan musika entzunaldiak, filmen proiektzioak edo sustapen-bideoak eskaintzen badira, kontuan izan badirela egile-eskubide batzuk, Egileen eta Argitaratzaileen Elkartek Nagusian ordaindu behar direnak, eta erakusketariak izango duela horren guztiaren erantzukizun zuzena. Hortaz, FICOBAN FUNDAZIOAK ez du erantzukizun zuzenik edo zeharkakorik hartuko bere gain, ez Elkartek horrekin, ez erakusketariarekin.

X. artikulua: **Deuseztapena eta parte hartzeari uko egitea.** Ukoa "Erakustaldia" inauguratu aurreko 60 egunetan eginen bada, eremuaren guztizko zenbatekoaren % 10 itzuliko da. Erakusketariak uko egin eta gero, erakundeak eskumena izango du erreferentziako eremua egoki deritzon norbaiti esleitzeko. Ez da inolaz ere itzuliko gordailu gisa ordaindutako zenbatekoa.

XI. artikulua: **Standetan produktuak birjartzeko ordutegia.** Standetan produktuak birjartzeko ordutegia mugatua da segurtasun arrazoiak direla eta. Hona hemen ordutegia: 14:30etik 15:30era eta 16:30etik 17:30era. Ordutegi horretatik kanpo birjarpenen bat egin behar izanez gero, baimena eskatu behar zaio antolakuntzari.

XII. artikulua: **Erakusketarikideak eta stand partekatuak.** Ez da erakusketarikiderik ez standen erabilera partekaturik onartuko antolatzaileen baimenik gabe. Stand partekatuetako erakusketariak erantzule solidarioak izango dira antolatzaileen aurrean.

Stand batean baimenik gabeko produktuen edo enpresen publizitatea egiten bada, antolatzaileek eskumena izango dute erakusketari horrekin kontratua desegiteko, inolako eperik errespetatu barik, eta stand hori husteko, erakusketariaren baimenaren beharrik gabe.

XIII. artikulua: **Enpresa erakusketariaren langileak.** Erakusketari bakoitza bere stand kudeatzen duten pertsonen arduraduna izango da eta zerga-eskakizunak betetzen dituztela eta gizarte-segurantzarekin egunean daudela egiaztatu beharko du.

XIV. artikulua: **Betekizun legal, sanitario eta fiskalak.** Parte hartzen duten enpresa guztiek legez jardun beharko dute, betekizun legal, sanitario eta fiskal guztiak betez. Enpresa erakusketariak behartuta egongo dira baldintza hori egiaztatzen duen dokumentazio guztia antolakuntzaren eta/edo aginte eskudunen eskura edukitzera.

XV. artikulua: **Salmentarako eta sustapenerako baldintzak.** Erakusketariak baldintza hauek bete behar dituzte: produktu bakoitza jendaurreko salmenta-prezioarekin markatuta egon beharko du. Artikulu bakoitzak aginduzko identifikazio- eta osagai-etiketa jarrita eduki beharko du, aplikagarri zaion araudiak ezartzen duenaren arabera. Inportatutako produktuen kasuan, enpresa erakusketariak inportazioa egiaztatzen duen dokumentazioa eduki beharko du ikuskatze-zerbitzuen eskura. Enpresa erakusketariak errespetatu egin beharko du Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legean eta kasuari aplikagarri zaion eta harekin bat datorren gainerako legerian agintzen dena. Enpresa erakusketariak egiten duen publizitateak bat etorri beharko du Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Legeak eta Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak ezartzen dutenarekin.

XVI. artikulua: **Be Veggie jailadiak lantzen duen gaia dela eta, erakusketarien aldetik errespetu maximoa eskatzen da ekitaldian zehar daukaten jarreran, bisitariekiko eta euren jarrera pertsonalean, estutasun egoerak sahiestuz.**

XVII. artikulua: **Be Veggie 2026en atalak eta onartzeko irizpideak.** Be Veggieren Antolaketa Batzordeak irizpide bereziak ezarri ditu honi erantsitako orrian agertzen diren produktuak eta zerbitzuak onartzeko. Onartzeko eskaera hau sinatzearekin batera, irizpide horiek betetzen dituela aitortzen du erakusketariak. Hasi aurretik edo ekitaldian zehar, irizpide horiek ez direla errespetatzen egiaztatzen bada, antolatzaileek stand horietatik kendu ahal izango dituzte aipatutako irizpideak betetzen ez dituzten artikulak, eta stand bateko produktu gehienek ez badituzte irizpide horiek betetzen, stand osoa itxi ahal izango dute. Kasu horretan ere ordaindu beharko dira fakturak.

Be Veggie-n parte hartzeko irizpideak:

1. Elikadura: Elikadura % 100 begetala, hau da, animalia jatorriko edo deribatuetako osagairik gabeko produktuak, animalia jatorriko produkturik erabili gabe ekoizitakoak (testatzea barne). Produktua beganoentzako egokia dela egiaztatzeko, produktu bakoitzaren indarreko ziurtagiriaren kopia bidali beharko da ("begano" kategoriaren V-Label zigilua, adibidez) edo, halakorik ezean, produktu bakoitzaren fitxa teknikoa eta ekoizpen-prozesuan animalia-jatorriko produkturik erabili ez duela egiaztatzen duen dokumentu bat.

2. Beganoentzako kosmetika (produktu ekologiko edo kosmetika natural gisa egiaztatua):

INCIren konposizioak ezin du animalia jatorriko osagairik izan. Ez da kosmetikorik edo osagairik onartuko esperimentazio fase ezberdinetan zein azken produktu gisa animalietan saiakuntzak egin baditu.

Ondorengo erakunde ofizialetako batek behintzat produktu ekologiko gisa egiaztatutako kosmetika: Ecocert, Natrue, Bio Inspecta, BDIH, Soil Association, Cosmos, Cosmebio, Demeter, etab. Beharrezkoa da erakunde jaulkitzailearen egiaztagiri ofiziala aurkeztea.

Kosmetika naturala da INCIren konposizioa osatzen denean landare-jatorriko osagaiekin (olio esentzialak, landare-olioak, lore-estraktuak, fruituak, sustraiak, etab.) o mineral-jatorrikoekin (ura, buztina, gatzak, etab.). INCIren konposizioa aurkeztu behar da.

Debekatuta daude ondorengo osagaiekin egindako kosmetikoak:

-Petrokimikoen deribatuak (parafinak, PEGak, silikonak, tentsioaktiboak, sintesi-lurrinak, etab.)

-Ez da onartzen sintesi kimiko hutsaren bitartez lortutako osagaiak erabiltzea, ezta genetikoki aldatutako organismoetatik eratorritakoak (OMG)

3. Ehun-gaiak eta osagarriak: animalia jatorriko osagairik ez duen arropa, oinetakoak eta osagarriak.

4. Habitat osasuntsua. Osasun-aldetik egokiak diren produktuak onartzen dira, osagai toxikorik ez dutenak eta zero hondakina bultzatzen dutenak. Produktu horien konposizioak ezin du animalia jatorriko osagairik izan. Ez da produkturik onartuko esperimentazio fase ezberdinetan zein azken produktu gisa animalietan saiakuntzak egin baditu. Atal honek barne hartzen ditu garbiketa produktuak eta detergenteak, dieta % 100 begetala errazten duten sukalderako lanabesak, zero waste produktuak, etab.

5. Ostalaritza eta Turismoa. Pertsona beganoentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten ostalaritza eta turismoko establezimenduak.

6. Argitaletxeak eta argitalpenak. Ikusgai jarriko diren liburuek, aldizkariak eta egunkariak Be Veggie 2026eko atal guztietako gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: osasuna, jasangarritasuna, animalien eskubideen babesa edo dieta % 100 begetala.

XVIII. artikulua: **Standak eraikitzea eta apaintzea.**

Debekatuta dago zulatzea, torlojuak jartzea, takoak finkatzea, hormetan pitzadurak egitea, ezta pabiloietako sabaietan, zoruetan edo zutabeetan modu mekaniko edo kimikoan finkatzeko beste edozein modu ere.

Moketa edo FICOBaren lurzorura aldi baterako ezarriko den beste edozein elementu finkatzeko, elementu hauek bakarrik erabili ahal izango dira:

- Azoka-alde bikoitzeko zinta erauzgarria, polipropilenoazko filmaren oinarriko euskarria duena, barruko aurpegia aldatutako itsasgarri akrilikoarekin eta kanpoko aurpegi akriliko itsasgarriarekin, ez du itsasgarriaren hondakinik uzten lurrean.

- Azoka-alde bikoitzeko zinta erauzgarria, polipropilenoazko filmaren oinarriko euskarria duena, barneko aurpegian eta kanpoko aldean disolbatzailerik gabeko kautxuzko itsasgarria duena, ez du itsasgarri-hondakinik uzten lurrian.
- Azoka-alde biko zinta erauzgarria, alde itsasgarri bat barrualdean indartsuagoa eta bestea ahulagoa, kanpoaldean, disolbatzailerik gabeko itsasgarri akrilikozko oinarri itsasgarriarekin eta zelulosazko artilezko ehunezko euskarriarekin, ez du itsasgarri-hondakinik uzten lurrian.

Espreski eskatzen da zinta horiek erabiltzea. Ficobari erosi ahal izango zaizkio, moketa jartzean lurzoruan kalterik ez eragiteko:

Alde	biko	zinta	itsasgarria	Eximport	TM-2152
------	------	-------	-------------	----------	---------

Zoruan markatzeko eta moketa edo beste elementu batzuk finkatzeko (zoruan, hormetan edo zutabeetan), debekatuta dago:
 -Errotulagailu iraunkorra, pinturak edo oinarri disolbatzailea duen errotulagailua edo petroliotik destilatutako produktuak

-Karrozeria edo Kraft papera mozorrotzeko zinta itsaskorra
 -Polipropilenoazko, polietilenoazko, PVCzko edo Kraft paperezko oinarritzko euskarriko enbalaje-zinta
 -Elementu mekanikoen (iltzeak edo zulaketa-takoak) edo kimikoen bidezko ainguraketak eta kontaktu-kolen edo antzekoen bidezko finkapenak. Era berean, ezin dira zulatu, torlojuak jarri edo arrailak egin.

Debekatuta dago hormigoia, morteroa edo metalezko egitura jartzea elementu bereizle bat jarri gabe zoru egokiarekin (zurezko taula xafla iragazgaitzarekin, eraikuntzako plastiko lodia, etab.).

Pintatu beharreko azalera guztiak behar bezala babestuko dira, gainerako erakusketarien lana ez oztopatzeko eta FICOBaren instalazioak ez kaltetzeko; disolbatzailerik edo petrolio destilatuzko produkturik gabeko pinturak erabiliko dira.

Debekatuta dago goritasun-erremintak erabiltzea (soldatzeko makinak, oxiebaketa, sopletea, etab.).

Debekatuta dago lurzoruak eta espazioak honako produktu hauekin garbitzea:
 -6,5 baino gutxiagoko PH duten garbiketa-produktu azidoak
 - 7,5 baino gehiagoko PH duten garbiketa alkalinoak
 - Disolbatzaileetan edo petrolio destilatutako produktuetan oinarritutako garbiketa-produktuak.
 - Produktu urratzaileak, gainazala marruskaduraz higatzeagatik. (Masail-hezurra, tripolia, lixa-papera, altzairuzko artilea eta gainerako konposatu urratzaileak).
 - Metalezko hortza erabiltzea hondarrak kentzeko.

Dokumentu honetan adierazten diren arauak ez errespetatzearen ondorioz lurzoruetan, zutabeetan edo hormetan kalteak sortzen badira, 46 €/ m2 fakturatuko da.